

BERRIGARA


43. zenbakia

Jardun elkarte, Bergara


1991, azaroak 29




Egileor aita-semeak
aurrez-aurre




Justo Garate
Argentinan
omendua



Eski
denboraldia
martxan da




Martin Egaña
Espainiako
bigarren



...
kutxa
...

gipuzkoa
donostia kutxa

Sukursale berria ireki dugu Barrenkale 2an



Barrenkale, 3 • BERGARA • telf.: 943-765919

**Pintxoak, eguneroko menua eta karta bereziak ditugu
Betiko eta oraingo sukaldaritza**

ARGAZKI

**18 urtean
zure zerbitzuan**

Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

Elena Bakaikoa

Aurreko GALDE DEBALDEko erantzun zuzena hau zen: Simon Arrieta.

Elena Bakaikoak idabazi du SANTOSEKO SARIA.

**ZORIONAK irabazleei!!
Eta besteok animatu, eta erantzuna eman aste honetako galderarai!**

SANTOS

IRRATI - TB

**Elektragailuak
Sukaldeko Altzariak
Argiztapena
Antena instalazioak
Elektragailuen konponketa**

Mahasterreka 2, Tfnoa: 76 26 10 BERGARA



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 57

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 760397

Laguntzailea: Bergarako
Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkoroberezar

**Erredakzioa eta
maketazioa:**

Eneko Azkarate, Eduardo
Mendibil

**Publizitatea eta
hapidetzak:**

Aitor Aranzabal, Iñaki
Arietaleaniz eta Ederne Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua: Jose
Angel Mikeo, Estepan Plazaola
eta Juan Martin Elexpuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.
Urzelai, Maripi Laskurain, Ainhoa
Lete, Jon A. Bengoa, Mikel
Lizarralde, Monika Belastegi,
Mikel Elkoroberezar, Josune
Iñarra, Xabier Aranburu, Aitziber
Aretxaga, I. Sorondo eta Ainhoa
Bikuña

Argazki laborategia:

A. Gallastegi, B. Cantero, M.
Leturia, K. Retolaza, J.A. Eguren,
J.I. Millan, J. Aguayo, J. Tabares,
Txomin Retolaza, Kifu eta Pol-
Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:
Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati)

Banaketa: Txantxangorri
Taldea

Copyright:
BERRIGARA

Tirada: 2.500 ale

Logo gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
esanen eta eritzien erantzunkiz-
zunik.



Gorlarako VI. Kotxe Igoeraren aurtengo edizioa Angiozarren jokatuko da igandean, Gorlako bidearen egoera txarra dela eta. Beraz, igande goizean Euskal Mendi Txapelketarako baliogarri den proba honetan, momentuko gidaririk onenak bilduko dira, Aitor Zabaleta bergararra eta Iñaki Goiburu tartean. Entrenamenduak 10etan hasiko dira eta lehen txanda 11.45etan izango da. Bigarrena, ordubetetan.

LARUNBATA 30

IGANDEA 1

- **Kontzertuak:**
 - Peter and The Test Tube Babies Txibiston 23.00etan.
 - Anticuerpos taldea Aretxabaletako gazte-txean 23.00etan.
- **Saskibaloia:**
 - Bergara-Amigos Baloncesto (lehen mailako kadete neskek), 16.00etan
 - Bergara-Ondartzai (bigarren mailako kadete neskek), 17.15etan.

- **Saskibaloia:**
 - Bergara-Eskoriatza (senior gizonezkoak), 12.00etan.
- **Matinala:**
 - *El señor de las bestias* 2 filmea 11.30etan Nove-dadesen.
- **Futbola:**
 - Bergara-Roca Agorro-sinen 16.00etan.

FARMAZIAK



30 Mozos/Gauzez: Corcuera (Arrasaten)

- 1 Mozos
- 2 Camacho
- 3 Puy
- 4 Estella
- 5 Estella
- 6 Mozos

ZINEA



Cita con Venus

- **OSTIRALA:** 22.30etan.
- **IGANDEA:** 17,00; 19.30 eta 22.15etan.
- **ASTELEHEN:** 19.30etan.

Todo por la pasta

- **LARUNBATA:** 17,00; 19.30 eta 22.30.

OGIA



Mizpildi

Mugica
Gozotegia

Artekale 3, Tfnoa 76 51 65

aneZKA

**Negurako oihalak
eta lenzeria**

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25

AMETSA
Bideoa

Erreportaiak, Ezkontzak, Kirol grabazioak, Bideo Industrialak
Zinten kopiak

Santalaitz 4 Tfnoa: 76 54 35

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C Tfnoa: 76 01 65



Kultur Etxeko komunak

Joan den asteko Berrigarán irakurri dot Kultur Etxeari buruzko artikulua, oso interesantea pentsatu jat, baina nik artikuluan aittatzen ez dan puntu bat azaldu nahi nuke: Kultur Etxeko komunen arazoa.

Bertan ia egunero ibiltzen garenok, eta jende dexente gara, komun bat besterik ez daukagu, eta berau urik gabe eta leihoa itxita, josita hobeto esanda. Pentsauko dozue bertan egoten dan usaina arratsalderako zelakoa izaten dan.

Udaleko Osasun arduradunek arazo hau aztertu beharko lukete, ehundaka lagun dabilen etxe baten eta gainera etxe publikoa izanda, ezinda aguantatu luzarotan halako egoerarik eta.

Besterik barik agur bat.

Zorionak elgetarrok

Joan den astean Elgetako Ostatuan afaria geneukala eta bertara inguratu ginen lagun talde bat, baina, horrelakoetan beti pasatzen den bezala lagun bat falta eta, plaza alboan dagoen kabinara joan nintzen telefonoz deitzeko asmoz. Eta horra non ustegabea, kabina horretan aurkitu nuena ezin daiteke aurkitu Elgetan hasi eta Alemaniainoko kabinetan: Elgetako kabinan Telefono listina dago!

Badaukagu zer ikastekorik ingurukuok, Bergaran listin batek ez lukelako iraungo ordu bete ere. Beraz zorionak Elgetarrok!

J.A.M.

Iñigo Epelde Unamuno

Tiira ba!



Josu Okina

□ Kirol argazkiak

Udal Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol Argazki Taldeak antolatutako kirol argazkien lehiaketan honako hauek izan dira sarituak: zuribel-tzean, **Javier Pedro Fernandez** getxotarrak jaso du lehen saria, hirugarren saria **Benito Cantero** bergararrarentzat izan delarik. **Daniel Santosek** lehen herritarrari zegokion saria eskuratu du. Kolorezkoetan berriz, **Benito Canterok** lortu du lehen saria eta **Juan Tabares** izan dugu lehen herritarra. Larunbatean, 7etan, Kultur Etxean sari banaketa izango da.

□ 47ko kintada

47 ko kintoek beraien anaiarteko eguna ospatuko dute igandean, hilak 1. Ordubateko mezaren ondoren bazkaria izango dute Antxonin.



Santa Zezilia

Joan den astebukeran Bergarako musika talde ezberdinek **Santa Zezilia**, musikarien patriaren eguna ospatu zuten, Orfeoia aurreko astean Lizarran zelebratu bazuen ere. **Aritzeta Abesbatzak** ostiralean afaria izan zuen Alzasun eta, bide batez, **Javier Mendizabal**, **Ione Salegi** eta **Elias Leteri** eskerrak emateko aktu txiki bat egin zen. Igandean berriz,

Osintxun izan genituen meza eta ondoren kaleetan kantatzen. **Udal Musika Bandak**, berriz, igandean eskeini zuen kontzertua Novedadesen. Ondoren, Antxonin izandako afarian **Bandak** eta **Udaletxeak Jesus Berroyari** eskeini zioten omenaldia. **Musika Eskolako** ikasleek ere Santa Zezilia eguna ederki ospatu zuten Pertxan egindako afarian.

□ Argizatze-lanak

Gabonetarako kaleak argizatze lanak direla eta, **Martin Deunaren Enparantza**, **Bidekurutzeta**, **Artekale**, **barrenkale**, **Ibargarai**, **Simon Arrieta Enparantza** eta **Irizar**, **Harruriaga**, **Irala** eta **Pedro Deuna** kaleetan sor litezkeen eragozpen txikiengandik barkatzeko eskatzen du **Kultur Taldeak**, **Jaiak** eta **Gazteria Batzordeak**.

□ Errepetidorea

Bergarako Udalak Itxumendin, telebistaren errepetidorearen ondoan, errepetidore bat jartzeko baimena eman dio **Gipuzkoako Gurutze Gorriari**. Instalakuntza egiterakoan, **Gurutze Gorriak** inguru horretan dagoen trikuharria errespetatu beharko du.

Etxea behera

Aste honetan hasi dira lehen **Camacho** farmazia zegoeneko etxea botatzeko lanak. Jabeek, eraikuntzaren egoera txarra zela eta, etxea bota eta bertan berri batzuk eraikitzeko erabakia hartu dute. Astelehenetik ostiralera bitartean kalea itxita egon da etxearen botatzeko lanak burutu ahal izateko. Behin kanpoalde eta barrukalde guztia bertan behera bota ondoren egingo den etxe berriaren fatxadak Udaletxeko proiektu teknikorak egokitu beharko du, inguruko etxeen antzeko fatxada izan beharko duelarik.



**BRIKOLAIA
AUTOMOZIOA**

**Turismoak,
kamioiak, etab.**

Bolu, Tfnoa: 76 44 04 BERGARA

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

□ Pol-Pol

Pol-Pol Mendizale
Elkartearen azken Batzar Orokorrean aurtengo kuoten igoera onartu zen. Bazkideen kuotak, beraz, honela gelditzen dira: nagusientzat 1.300 pta., 800 gazteentzat eta, azkenik, gaztetxoek 400 pta. ordaindu beharko dituzte. Kuota eskuz ordaintzen duten guztiak elkarteko bulegotik pasa beharko dute astelehen eta ostegunetan arratsaldeko 7etatik 8.30etara. Mendi zein skiko federatu karne-tak berriztatzeko aukera ere badaukazue.

□ Abdon Juaristi

Ostegunean inauguratu zen Iruneko Kokosehka arte galerian *Abdon Juaristi* bergararraren oleo erakusketa. Erakusketa abenduaren 20ra arte izango da ikusgai.



Kondekoratua

Espainiako Erregeak hartutako erabaki bati jarraituz, Arjentinako konsul espainiarrak *Justo Garate* bergararra *Isabel Katolikoaren Ordenaren Zaldun Gurutzeta* eman dio. Jasotako kondekorazio honengatik, 1936. urtetik Arjentinan bizi den bergarar honek Mendoza hiriko Mediku Zientzien Fakultatearen omenaldia ere jaso berri du.

Errekonozimendu hauek direla eta, azken Gobernu Batzordean Bergarako Udaletxeak Justo Garate jaio zeneko

etxean dagoen plaka destakatzearabaki zuen. Plaka hori Bergarako herriak 87an eskeinizion omenaldiaren oroigarri jarri zen Barrenkaleko 27. zenbakian. Urte hartan itzuli zen bergarar hau azken aldiz bere jaioterrira, *Eusko Ikaskuntzak* eman zion *Manuel Lekuona* saria jasotzeko hain zuzen ere. Gure herrilagun ospetsu honek bere bizitza guztia eman du medikuntza eta irakaskuntzan lanean. Era berean, euskal kulturari buruzko hainbat ikerketa eginak ditu.

□ Gurutze Gorria

Deba Garaiko Gurutze Gorriak 1974/75an jaio eta 93an *Borondatezko Zerbitzu Ordezkorra* egin nahi duten guztiak jakin erazten die horren berri 765576 telefono zenbakian eman dezaketela. Izena emateko epeak abenduaren 31ra arte iraungo du.

□ Epeak luzatu

Udaletxetik laguntzaren bat jaso nahi duten talde guztiak urteko ekintza eta datorrenerako asmoak aurkezteko *txostena*, kartaz azaroaren 30erako eskatu bada ere, abenduaren 5era arte luzatzen da aurkezteko epea. Bestalde, *Eskaparate lehiaketan* parte hartu nahi duten komertzioei ere abenduaren 5era arte luzatu zaie izena emateko epea.

TOKI-EDER
Taberna

Pintxoak eta
eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

A



ARRASATE

ELKORO
ANTENAK

✓ **TB Satellite bidez**

✓ **Telebanaketa**

Tfnoa: 79 18 86



Ekin Euskarari

Astearte arratsaldean inauguratu zen Udaletxeko Pleno Aretoan *Eusko Jaurlaritzak* bul-tzatutako "Ekin Euskarari" izeneko erakusketa. *Roman Berriozabal* Hizkuntza Politikorako Idazkaritzako zuzendaria eta *Koldo Pereira* Euskara eta Hezkuntza Batzordeko burua egin zuten herriz herri joango den erakusketa honen aurkezpena. Biek euskararen erabilpenaren hazkunde emateko egin beharreko ekintzen garrantzia azpimarratu zuten. Erakusketa honetan

jasotzen den bezala, bizitzaren arlo ezberdinetan euskararen konplexurik gabeko erabilpenak berebiziko garrantzia du. Horrela, abenduaren 8ra arte udaletxean ikusgai izango diren zenbait panel bideo-proiektore eta diapositiba muntaia ikusgarri batean euskararen erabilpenaren hainbat datu eta egoera bitxiak aurkezten dira modu erakargarri batean. Erakusketa goizez zein arratsaldez ikusteko aukera izango da astegun eta jaiegunetan.

Txinpartak

✓ Gaur ostirala, hilak 29, rockaren txanda izango da *Azaro-abendu Musikalaren* programazioan. *Piztiak* eta *Su Ta Gar* taldeek kontzertua eskeiniko dute *Txibiston* gaueko 10.30etan. Sarrerak 300 pta. balio du eta autobusak dohainik izango dira; Goiko Plazatik 10 eta 10.30etan joateko eta goizeko ordu batean eta 1.30etan itzultzeko. Bihar berriz, gaueko 11etan, *Peter and The Test Tube Babies* joko dute *Txibiston*.

✓ *Aritzeta Abesbatzak* errepertorio berria hobetzeari ekingo dio astebukaera honetan *Barriako Monastegian*.

✓ *Gazinemak* antolatuturik, aste honetatik aurrera ostiralero filme bat eskeiniko da *Antzuolako Zine Aretoan*. Gaur ostirala, hilak 29, *Bailando con lobos* filmea ikusteko aukera izango da gaueko 10etan. Datorren astean berriz, ostegunean, *Dirty Dancing* emango da.

✓ *Luciano Guisado* eta *Zangitu* Bergara futbol taldeko jokalariek baja izango dira denboraldi guztirako. Guisadok kotxe istripu bat izan zuen astebukaeran eta *Zangitu* belaunetik operatu berria dago. Bioi ere errekupeazio azkarra opa diegu.

✓ *Bergara Igeri Elkarteak* hilabetero argitaratzen duen *Zipristinak* aldizkariaren hirugarren alea astebukaera honetan kaleratuko da. Elkarteari buruzko informazioa eskeintzea helburu duen orri bateko aldizkari hau tabernetan jaso daiteke.



TOSHARE

ILEAPAINDEGI MISTOA
ESTILISTA.

Artekale 29, Behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA

ANDIVZV

ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA

Errotuloak, igeltseritza
eta pintura lanak.

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA



IZADI

Santiveri

PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua
Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

TARTUFO



SAN JUAN

BERGARA



Egileor aita-semeekin

Bergaran ez da sekula betsolari ugari izan. Banaka batzu dira plazarik-plaza bertsoan ibili direnak. Gaur egun Jesus Egileor, Koldo bere semea, Gorrotxategi, Ainhoa Agirreazaldegi gaztea eta bertso eskolako bere lagunak ari dira bakarrik. Ezin ahaztu Arantzazu Loidi, Aretxabaletan bizi arren Bergaran jaioa bait da.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa gori-gorian dela, momentu aproposa iruditu zaigu Jesus eta Koldo Alberdi, aita eta semea, aurrez-aurre jarri eta bertsoaritzari buruz jardutea.

Koldo Alberdi Egileor II.a, 31 urte, jendaurrean 19 urterekin ekin zen bertsoan, Elosun jokatu ziren txapelketa batzuetan. Harrezkero, gazte txapelketetan han eta hemen ibili izan da.

Jesus Alberdi Egileor, 61 urte, 43 bat urtetan bertsoan. Elosun bizi zela ekin zen bertsoan, beste azkoitiar bertsolari

batzuekin: Bixko, Lizaso zaharra...

Alex Alberdi, beste semea, txikitan Ikastolan zebilela bertsoan aritu zen baina berehala utzi zion: "Alex sekula ez dut bertsoan ikusi. Txikitan txanpon batzu ematen zioten eta ibili zen pixkat, kobratzen zuen artean ibili zen baina handik aurrera ez".

Txapelketatan

Jesus Alberdi txapelketatan ibilia da baina urteak dira norgehiagokatan ez dabilela: "Amurizak lehenengo txapelketa jantzi zuenean, 1.982an, ibili nintzen azken aldiz. Gernikan jokatuak kanporaketa izan zen azken aldia". Txapelketatan parte hartzeari uztearen

arrazoiaz hitzegiterakotan adinari eusten dio Egileor zaharrak: "urtetan ere aurrera banindoan eta ni baino hobeak ere baziren. Gainera txapelketetarako ez naiz sekula izan. Bertsoan aspaldi hasi ginen eta gai jarri bati buruz bertsoan egitera ez nintzen ohitu, gai librean izaten zen orduko bertsoia".

Deba Arroko Txapelketa birritan atera zuen orain dela urte asko, baina osterantzean ez du txapelik jantzi, bertso jaialdietan herririk-herri ibili den arren. Euskadiko Txapelketa zortzi bider parte hartu du.

Sasoian

Sekula ezagutu duen sasoirik onenean dago gaur egun bertsoaritzan, kantitate zein kalitate aldetik. "Gure denboran hamabost bat bertsolari ibiltzen ginen: Lazkao Txiki, Zepai, Arozamena zena, Lasarte..., Gorrotxategi ere orduantxe hasita zen. Orain gehiago dira» kontatzen digu Jesus Alberdik.

Koldo, semearen eritiziz, "gaur egungo bertso-lariak askoz ere hobeak dira. Euskadi Irratiak ematen dituen bertso saioak entzutea besterik ez dago, orain hogeitaz urteko bertsoen eta gaur egungoen arteko diferentziak ikusteko. Hizkuntza, esateko erak, asko landu dira".

Asko aldatu da ber-

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia

San Pedro 11
Tfnoa: 76 51 65


Pepelu
Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07

Siaska
Dena zure
haurarentzako

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

tsolaritza, Egileor hasi zenetik. Gaur egun Saioak ikustera lehen baino jende gehiago agertzen da. Horrela ziurtatu digu Jesusek: "Amurizak lehen aldiz irabazi zuenean ia 4.000 lagun bildu ziren Donostian. Azken Txapelketan, 10.000 lagun inguru egon ziren..."



Ez nuke sinistu nahi baina badirudi azken aldian bertsolaritza modan dagoela

Hortan komunikabideen eragina nabarmena da, Koldoren ustez: "telebistan bertso saioak ikusteko aukera izatea oso garrantzitsua da. Bestalde azken aldi honetan irrati guztiek programatzen dute bertso saioaren bat. Ez nuke sinistu nahi baina badirudi azken aldian bertsolaritza modan dagoela".

Bertso eskolen eragina

Bertso eskolen sorrerak bertsolaritzaren maila asko hobetu du. Almen Ikastetxearen inguruan orain dela hamabost bat urte sortutakoa izan da ondoren etorri direnen eredu.



Basarri da ezagutu dudan bertsolaririk onena. Harek landu egiten zuen bertsoa

Bergaran orain dela laupabost urte sortu zen Aranzadi eta Mariaren Lagundia Ikastoletako haurrentzat eta Koldo Egileor da eskolako arduraduna. Berak argi azaldu digun bezala, "gazteen artean bertsoa ezagutaraztea da gure helburua. Entzuteran doana bertsoa ona edo txarra den bereizteko

gauza izan dadila".

Gustokoen duten bertsolariaren izena eskatu eta, aita, Lizasoren alde azaldu da; semea, berriz, Egañaren alde. Horiexek dira eurentzat aurtengo Txapelketa irabazteko aukera haundienak dituztenak.

Ezagutu duen bertsolari onena, bestalde, Basarri da Jesusen eritziz: "Onena Basarri, dudarik ez, gainera. Berezkoa eta eskola haundikoa izan delako. Lizaso zaharra, Lasarte..., horiek ere onak ziren baina onena Basarri. Gure aldean harek landu e-

giten zuen bertsoa".

Amaitzeko, bertsotan eman dituen urte luzetan berari gertatutako pasarteren bat konta dezala eskatu diogu Jesus Alberdiri: "Behin, Gaztelun Lazkao Txiki, Lizaso eta hirurok geundela, han zeuden dozenaldi guardia zibil. Etorri ziren guregana eta galdetu: «Ustedes son los cantaores?». Guk baietz. «Y que van a cantar ustedes?» Eta..., pues no sabemos todavía. «No lo saben?, vaya cantaores de los cojones...». Barreak aquantatu ezinda hantxe geratu ginen".

Txapela jokoan

Egileor aita semeekin izandako berriketaldia bukatzeko, bertso bana eskatu genien, gaia emanaz: aita-semeok Euskadiko Txapelketaren finalean zaudete. Saioaren amaieran biok izan zarete onenak eta txapela nork jantzi bertso banatan erabaki behar duzue. Hara, bada, semeak aitari lehenengo, eta aitak semeari ondoren, botatako bertso bana:

Aita zaharrak lehenago ere bazitun zenbait idea ta erakutsi du orain artean zenbaten zuen berea ageri hutsean utzia dezu zeure abildadea hemendik aurre utzi zaiezu gazteagoi bidea.

Nere semeak zer esango zun nenguan guztiz jakina semeak ongi ezagutzen du guraso baten dotrina urtien pisuz burua soiltzen nolán daukaten ekina ta aita zaharrak oraindik badu txapel on baten premia.

ANTIA

HARATEGIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

**INFERNUKUA
TABERNA**

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

la ermita denak erdi arokoak

Irizar Jauregiko artxiboan Bergarako zenbait ermitei buruz aurkitutako idazkien berri dakargu Imanol Sorondok.

Ziur nago Bergarako ermitak, bat edo beste kenduta, erdi arokoak dirala, eta horrela adierazten dute batzuetako santuen irudiek, beste batzuen leihoak edo sarrerak, etab., baina antzinako idazti batean ermiten izenak eta urteak azaltzen direnean, osotasun haundiagoa ematen diete. Zahar izateak eta dirala jakiteak oinarri sendoagoak ipiniko balizkie bezela.

Irizar Jauregiko artxiboan bi testamentu aurkitu nituen. Bat, 1.468 garren urtean Bikuñatar Teresak egina. Tartean, hau agindu zuen (hona hemen euskeratua): ...Leizarrako San Llorenteri lau libra olio, San Faustori libra bat olio, eta Ozaetako San Martineri beste bat, eta Lamarianoko Millan Doneari beste bat, Salvatore Deunaren meza bat emateko agintzen dut, eta Iriaungo San Andreseri bi florin (diru) bidaltzen dizkiot, San Kolomanen meza bat emateko agintzen dut, ... Aizkoegiko Santa Engrazira berrogei zuriko


(diru) bidaltzen dizkiot, eta Ezkialdeko San Migeli bi florin,...

Bigarren testamentua Arostegitar Pero Ibañezena zen, 1.432garren urtekoa: ...Eman Elorregiko San Prudentziori bi milla marabedi zurizko dirutan, eta bertako ermitaren ermitaño den Loperi berrogei ta zortzi marabedi zurki...

Nolako poza izaten dan horrelakoak aurkitutakoan! Gauza asko oinarri sendoagoak balizte bezala. Bi testamentu horiek Arostegi abizeneko legajoetan azaldu ziren. Uste dut 100etik gora legajo dituen artxibo hau Ebroko Mirandara eramán izan dala.

Bergarako gauza asko topatu litezke bertan, eta berari dagozkionak mikrofilmaz ona litzateke. Oñatiko kondearen artxiboa pixka bat begiratuta dago, eta gauza honetarako Ozaetako etxeari dagokionari begiratu bat ematea ez litzateke gaizki etorriko.

Imanol Sorondo



Irizar Jauregiko (goiko argazkian) artxiboan bi testamentu aurkitu zituen Imanol Sorondok. 1.468ko Testamentu horietan (beheko eskumaldeko argazkian erakusten dizuegu zati bat) honako ermita hauek aipatzen dira: Leizariako San Llorente, San Fausto, Ozaetako San Martin (behean ezkerrean) Lamarianoko San Millan, San Salvador, Iriaungo San Andres, San Koloman, Aizkoegiko Santa Engrazia eta Ezkialdeko San Migel.

OILAGORRA
Taberna

Barrenkale 21, BERGARA

ederJU

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA

Eski denboraldia martxan da

Aurten ere ehundaka bergarar elurretan gozatzera.

Gero eta gehiago dira astebukaera ailegatzean Pirineo aldera ihes egiten duten eskizale bergararrak. Orain dela hamar urte inguru bakar batzuen kirola zenak izugarrizko gorakada bizi izan du azken urte hauetan. Modan dagoen kirola dugu eskia duda barik.

Aste honetan denboraldia ofizialki ireki dela eta bestetan baino mugimendu haundiagoa nabaritu da Pol-Pol Mendizale Elkarteko bulegoetan, eskia egitera joateko modu asko dagoen arren, Pol-Polek abantailak eskeintzen bait ditu.

Esaterako, mendi elkartearen bitartez urte guztirako bonoa hartuz gero, 50.000 pezeta ordaindu beharrean, 7.000 pezeta gutxiago ordaindu beharko lituzke bazkideak eta 5.000 gutxiago bazkide ez denak.

Pol-Polek hamabostean behin antolatzen ditu eskiatzera irteerak. Horrez gain, zubiak datozenetan eta gabon inguruan eskursioak egiten dira.

Jaca aldera

Pol-Polen jasotako datuen arabera iaz 500 bat bergarar ibili ziren astero-astero Pirineo



aldean eskiatzen. Horietatik gehienak Jaca aldera jotzen dute (Astun, Candanchú eta Formigaleko pistetara), nahiz eta azken urteetan gero eta gehiago izan Frantziako eski estazioetan (Luz Ardiden, Saint Larie...) ibili direnak. Horiez gain, banaka batzuk Ezkarai aldera jotzen dute.

Eskiatzera joateko era asko dago: autobusean, kotxean... Eta bidaia antolatuan ala norberaren kontura joan daiteke. Antolatutako bidaia baten joan ezker 8.500/9.000 pezeteta kostako zaigu astebukaera bat e-

lurretan igarotzea. Autobusa, erremontea eta hotelean gau bat pensio erdira, diru horregatik.

Norberaren kontura joaten direnen artean, 60 familia bergarar inguruk etxea daukate Jacan bertan, eta pisua alkilatzen duten kuadrilak ere ugarriak dira.

Kirol garestia?

Beti esan ohi da eskia kirol garesti xamarra dela. Jantziak, ekipoa, etab.ek ez dute hiru txakur haundi balio. Dena dela, gehiegi gastatu barik elur gainean gozatzera

ko aukera ere badago. Erropak norberak eraman ezker, eskia egiteko ekipoen alkilerrak 2.000/2.700 pzeta kostako zaigu. Ez dirudi hain garestia. Pol-Polek fondoko eskia praktikatzeko materiala uzten badu ere, alpinoa egiteko ez dauka tresnarik.

Eski denboraldia hasi da dagoeneko. Iaz bezala aurten ere eguraldiak laguntzen badu, aukera bikaina astebukaera tabernatetik kanpo gozatzeko. Herrian kaleak hutsik eta Jaca bergararez beteta izango da berriro ere.

PUC - VEKA -
LEIHOAK - ATEAK

Elorregi Auzoa
BERGARA

Tfnoa: 76 58 87

MAKAILO
Makallau **ETXEA**
kazuelak
gertatzen ditugu

Ibargarai 15



**ETXE-
-AUNDI**

**Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

FS oto istema

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- Diapositiba errebelatzeak
- Karneterako argazkiak momentuan
- Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50


**TABERNA
ZAHARRA**

Jatetxea

**Bazkariak
eta
afariak**

Tfnoa 76 21 21
ANGIOZAR

Bertso saioak gustoko dituzu?



Julian Etxaniz
78 urte, jubilatua

Asko gainera. Batez ere periodikotatik eta telebistatik jarraitzen dut txapelketa.



Irune Azpeitia
23 urte, langilea

Gustatu bai, baina jarraitu bakarrik domeka goizetan irratitik egiten dut.



Juanita Eiguren
60 urte, etxeakoandrea

Jaiero jarraitzen ditut telebistatik. Bertsolari gazteak gustokoagoak ditut, lehengoak asko einda daude eta.



Asier Lenisoro
16 urte, ikaslea

Behin bakarrik egon naiz jaialdi baten baina *Hitzetik hortzera* programa domekero ikusten dut.




POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



Herri prentsaren indarra

Azaroaren 22an eta 23an 120 pertsona inguru bildu ginen Arrasateko Lan Kide Aurrezkiaren hitzaldiaretoan, Prentsa Lokalari buruzko 1. Ihardunaldietan parte hartzera. Gehienak euskaldunak. Katalanak eta galegoak ere bai.

Bi egun oso aberatsak izan ziren. Argitu egin zen, lehenengo aldiz, euskaraz egindako herri-prentsaren panorama. Orain dakigunez, herri-aldizkari gehienak Gipuzkoan egiten dira, gehientsuenak euskaraz. Tiradari dagokionez, berriz, Bizkaia da nagusi, Bilbo inguruan gaztelaniaz ateratzen diren aldizkarietara esker. Hauek ez dute dirulaguntza beharrik; publizitateak bizi dira.

Euskaraz egiten den herrietako prentsaren sekulako aldaketak egon dira azken hiru urte hauetan, Arrasate Press jaio zenetik. Profesionaltasuna, doantasanak eta publizitatearen eta ordenadoreen erabilpenak markatzen dute herri-prentsaren iraultza hau.

Euskarazko guztiak asterokoak bihurtuz gero, astero 24.000 ale banatzen dituztela ikusi da. Euskal herri-prentsak 100.000 irakurlerengana ailegatzen dela esan nahi du horrek, herri-prentsari ale bakoitzeko 4,5 irakurle kalkulatu zaizkio eta. Marka izugarria euskal prentsari. Hala ere, euskaraz egiten den prentsa-lokalak publizitateaz gainera, diru laguntzak behar ditu. Administrazioak eskuzabaltasunez erantzun behar du bide honetan aurrera egiten segitu nahi bada.

Joxe Aranzabal



Egutegi penagarria

Gaurko honetan benetan tamalgarria eta lotsagarria iruditu zaidan gertaera bat denuntziatu nahi nuke. Gabonak inguruan ditugula eta, Elgoibarreko batzokiak, eguberritarako emakume eta galeper izterrak gertatzeko errezeta bat eskeintzen digun egutegi bat banatu du. Bertan, emakume izterrak bailitza saltzen dituzte, besterik ez bagina bezala. Agresio sexuala jasaten duen emakume baten imajina azaltzeaz gain, ondoan, errezeta bat eskeintzen digute:

Gertaketa: ordubete inguru.

- Galeper gazte, samur eta mardul bat aukeratu (18 urte ingurukoak dira egokienak).
- Behin ehizatua izan ondoren, berehala ia kontsumitu behar da.
- Guztiz deslumatu, berotzen doan bitartean.
- Kabi gainean ipini izterrak gorantz begira ditue-larik.
- Saltxitxa betegarria sartu txoriaren barrukaldetik.
- Energiat atundu.
- Ardo gorri fresko batekin lagunduaz kontsumitu.

Horrelako gertaerak dira mintu eta inpotente sentiarazten nautenak, gehiengo baten insentsibilitate aurrean. Tamalgarria.

Ainhoa Lete

**M.
OSINAGA**

**Etxeko
erreformak**

**Sukaldeko
altzariak**

Espalola z/g
Tfnoa: 76 29 85 / 76 00 57

LITXAR
Kruasantegia

- Gosariak
- Askariak
- Hanburgesak / Sanwichak
/ Plater konbinatuak / Pizzak

Fraiskozuri enparantza 4 Tfnoa: 76 55 45 BERGARA

Zeuk galde



43. Ba al dago erremedioren bat eraztuna hatzamarrean estu dagoenean ateratzeko?

Badago bai horretarako bide erraz bat emaitza onak ematen dituena, gainera.

Sartu ezazu hatzamarra ur hotzetan. Hala, mehetu egingo zaizu apur bat.

Ondoren igurtzi ezazu jaboiaz eta saia zaitez ateratzen eraztunari alde batera eta bestera bueltak emanaz.

Egon seguru emaitza onak lortuko dituzula. Bestela, zer egingo zaio, bada, ebaki egin behar... eraztuna.

□ Hori martxa, hori!

Bostehun lagun inguru bildu ziren joan den ostegunean *Jubilatueta Egoitzan* egindako festan. Bostetan merienda-txoa hartu eta berehala zenbait opari zozketatu ziren bildutako guztien artean. Ondoren, *Musikal Araba* taldearen akordeen laguntzaz dantza lehiaketa ere izan zen; *tango* estiloan *Mari Sol Zubizarreta* eta *Maria Gonzalezek* osatutako bikotea nagusitu zen, *valsekoan* *Tomas Inciain* eta *Dorotea Amok* osatutakoa eta, azkenik, *pasodoblean*, *Obdulia Andres* eta *Victor Cuesta* izan genituen irabazleak. Txoritxo batek esandigunez, parte hartu zuten 20 bikoteek gaztetan baino hobeto dantzatu zuten, martxa eta estilo ederra erakutsiz. Esperientziaren balioa, badakizue.



□ Jardunean

Joan den astebukaeran, Arrasaten, *Prentsa Lokalari buruzko lehen Ihardunaldiak* izan ziren. Bertan Kataluina eta Euskal Herritik etorritako hainbat ordezkari gaurko egunean ematen ari den fenomeno honen azterketa sakona egin zuten. Guztiek prentsa lokalak duen etorkizun itxaropentsuarekin bat etorri ziren eta hitzaldi guztiak oso aberatsak eta interesgarriak izan genituen. *Miguel Angel Elkoroberezibar Berrigarako zuzendariak*, bere aldetik, *Prentsa Lokalaren finantziabideak* aztertu zituen. *Chapeau!*

LXUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62
BERGARA



Era guztietako
kristaleria: Ispiluak,
bidrierak...

UR Kristaldegia

Urteaga 8, Tfnoa: 76 54 68 BERGARA



□ **60. urteurrena**

Joan den larunbatean 52koak izan ziren bildutako *kintoak*. Hauek bazuten juntatzeko motiboa bai, aurtengoan beraien jaiotza-
ren **60. urteurrena** ospatzen bait dute; Monja Zaharretan hildako lagunen oroime-
nezko meza entzun ondoren, 30 bat lagunek, nola ez, mahai baten inguruan ekin zioten berriketari eta ondo afaltzeari Antxonin. Gure kamara ere bertan zen ondo eramandako 60. urteurren hori erretratatzeko.



Zertan dihardute ba?

TAUN-TAUN



Bergarako txontxongilo taldeak bere *Bi kate* lana antzeztu zuen igande eta astelehenean Tolosako IX. Nazioarteko Txontxongilo Jaialdian. Horrez gain, lanaren zati bat antzeztu zuten asteartean ETBko *Begirik kendu gabe* saioan.

LIDE OREGI



Astero astero 56 urteko bergarar honek gure herrian gertatzen diren notizien berri emango digu *Arrate Irratitik*. Lidek bi aste daramatza eta asteartero 12 t'erdia inguruan entzun ahal izango duzue.



Ziripot
Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

ARLA, E.L.
montaia elektrikoak

- Argindarra
- Elektrotresnak

Ondarre Plaza 2, Tfnoa: 76 63 36
ANTZUOLA

Tximak
Ileapaindegia

Fralkozuri 3, Tfnoa: 76 56 69

Izkirimiriak

Bergarako mutikoak ere ez dira ba batere makalak; nolako egur alako ezpal. Joan da bein Patxiko beti bezela eskolara ta epezarte batean jolasean berobero ari dalarik etorri zaio bearkizuntxo bat, baiña bai..., "orretarakotxe natxegok oraintxe... gero ere izango diagu eskolan orretarako lain asti..." Auetxek omen ziran Patxikoren burutapenak, berak gutxien uste ta batere nai ez zuela zer ori zertu zitzaionean... alegia, baserrietan eginkari itz garbiz adierazten dan gauza zikin ori galtzetan beera nabaitu zue-nean...

Maixuak bialtzen du etxera eta badoa Patxiko naiko narratx eta kezkatu, alde batara ta bestera zelatan, nork bera ikusi ta bere makurrez barre egingo.



Alako baten ikusten du bere lagun batek eta batere errukirik gabe, argi ta "zikin" badiotsa...

-Patxiko!... galtzetara KK egin dok e?...

Orduan Patxikok bere burua nunbaitetik jaso bear eta bere lagunari goitik beera begiratuaz erantzuten dio arro-arro...

-Ik baiño lenagotik najakixan!!...

Txomin Amasorrain

Antzinako kontuak

Bergarako kaleak

Bergara hiru kalez osatutako hirien taldekoa da: Barrenkale, Artekale eta Goenkale. Kale hauek luzerako zentzuan eta hiria dagoen maldarekiko elkarzutik daude.

Dena dela kale hauek, gaur egun oraindik izenak gordetzen dituztenak, ez dira beti horrela deituak izan. 1.506ko Ordenantzetan gaur egun oraindik izena gordetzen ez duen *Calle Mayor* bat aipatzen da. Kale hau, gaurko Barrenkale litzateke. Barrenkale izena, XVI. mendean, hiria Mahasterrekako auzorantza zabaltzen zeneko toponimoa da ziurraski.

Hala eta guztiz ere, ez da hau Barrenkale izan duen beste izen bakarra, batzutan *Calle Real* (1.540) eta *Calle de abaxo* (1.600) ere deitu izan dute.

Beste kale bien topo-


nimoa ordea, 1.506. urtean agertzen da *Goencale* eta *Artecale* idatzita, baina geroko dokumentuetan, batzutan, *Camino real de Elosua* eta *Calle Real* esaten zaie bakarrik.

Hasierako hirigunea hiru kale hauek osatzen zutela onartu ezker, lotzen dituzten etxarte bi ditugu, geroago XVI. mendeko zabalkuntzak sortu zituzten aldaketak kanpoan utzita.

Kaleak zentzu perpendikularrean lotzen zituzten etxarte hauetako bat Barrenkaletik Artekalera zihoan eta bestea Artekaletik Goenkalera.

XVI. mendean bukaeran, hiriaren aldaketarekin, beste etxarte bat agertzen da, Arreseko kantoia. Honek ere, oraindik gordetzen du izena.

Amaia Basterretxea



GAZTELV S.A.
Burdindegia

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

Zubiberri

Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06

Etxenagusia

Berezitasunak:

kremazko kafea eta
paella Valentziako erara

Bidekurutzeta 9, Tfnoa: 76 20 08

I
Z
O
Z
K
I
A
K



I
Z
O
Z
K
I
A
K

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22



Igerilari bikainak

Iñigo Gallastegi Gipuzkoako Igerilaririk Konpletorenaren Txapelketa irabazi zuen hirugarren aldiz jarraian joan den larunbatean Ordizian. 77an jaiotakoan artean berriz, *Jon Jauregik* bigarren postua lortu zuen lau estiloetan 100 m.ko probak jokatu ondoren, *Juan de Borjak* 78koen artean lortu zuen postu bera. Bestalde, nesken kategorian, *Nora*

Olabide hirugarren izan zen 76an jaiotakoan artean eta *Maidar Igartua* ere hirugarren izan zen 77koen artean. *Jesus Jauregi* entrenatzailearen iritziz, "txapelketa hau guztiz positiboa izan da emaitzei dagokienean, beste hainbat igerilari beraien markak hobetu bait dituzte". Aipatutako igerilari guztiek astebukaeran Euskadiko Txapelketan hartuko dute parte.

Txinpartak

✓ *Iñigo Igartuak* igandean *Valkenwaarden* (Holanda) korritutako *Superprestijioaren* karreraren forma ezinhobean dagoela erakutsi zuen 12. postuan sailkatuz. *Iñigo* sailkapen orokorrean ere 12. postuan dugu.

✓ *Bergarako futbol taldeak* puntu bat ekarri zuen *Usurbiletik* larunbatean husna berdindu ondoren. Igande honetan *Agorrosinen* berarekin batera sailkapeneko lehen postuan dagoen *Roca* taldearen aurka jokatu du.

✓ *Saskibaloian*, *Bergarako* bi talde nagusiek garaipena lortu zuten joan den astebukaeran; senior gizonetako *Larramendiri* 60 eta 64eko emaitzarekin irabazi zioten eta emakumezkoen 2. mailako taldeak, bere aldetik, garaipena lortu zuen *Divino Maestrosen* kontra 43 eta 39ko emaitzarekin.

✓ *Aurten Angiozarren* jokatu den *VI. Gorlarako Kotxe Igoeran*, besteak beste, *Aitor Zabaleta* bergararra, *Iñaki Goiburu*, *Javier Climent*, eta *Xabi Rierak* hartuko dute parte. Lehen txanda 11.45etan izango da eta bigarrena arratsaldeko ordu batean. Karretera goizeko 9.30etatik arratsaldeko ordu bietara itxita egongo da zabortegetik Angiozarko gunerarte.

Espainiako bigarren

Martin Egaña bergarar gidariak igandean *Bartzelonako Montmelo* zirkuituan lortutako 6. postuarekin *Espainiako AX Txapelketaren* bigarren postua eskuratu du. Egañak oso zaila zuen lehen postua lortzea eta bigarren postu horri eusteko asmoz abiatu zen *Bartzelonara*. Azkeneko txandan 8. postuan irten bazen ere, bi postu aurreratu eta azkenik 6.a izan genuen helmugan. Beraz, denboraldian zehar lortutako bi garaipenak, bi bigarren postu, hirugarren bat eta igandeko 6. horrek azken sailkapeneko bigarren postua eman diote Egañari.



Zure
konfidantzako
denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE



Aranzadi Ikastolako jaialdiak

Orain dela 15-16 urte inguru ateratako erretratu hau. Garai hartan, Aranzadi Ikastolan, urtero, maiatzaren 31 garrena heltzen zenean jaiegun ederra izaten zen, orduan Ikastolako erretore zen Aita Fernandoren eguna zelebratzeko.

UNEDen izaten ziren jaialdi haietan era guztietako aktuzio eta antzezpenak egiten zituzten ikasleek. Orduan 5-6 urte izango zituzten eskolaurreko neska-mutikoek, Errealaren garairik onena aprobetxatuz, jokalaria donostiarren omenezko antzezpena egin nahi izan zuten.

Ezkerretik eskumara: Kepa Egaña, Aitor Salaberria, Aitor Garitano, Igor Mujika, Iñigo Ena, Gurutz Mendizabal, Ibon Bilbao, Ibon Arrieta, Nerea Ezpeleta (pankartari eutsiz), Mikel Lazkano eta Leire Aretxaga.

Argazkia: Izaskun Jimeno.

**MINER Ardo onak,
ardoa jakina**

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

**Garnish
Bitxitegia**

Berriz ere zuekin!

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57



ETXEBIZITZA

Pisua daukat eta konpartitzeko lagunen bila nabil. Deitu: 762457 (eguerdian).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. Tfnoa: 765823.

Garajea alokairuan utziko nuke Burdifatzen. Deitu: 763189.

Pisu edo buhardila hartuko genuke alokairuan. 764735.

Pisua salgai Koldo Eleizalde 20an. Deitu gaueko 8etatik aurrera: 764252.

Pisua salgai Dr. Fleming kalean. Deitu 760415 telefonora iluntzeko 8etatik 10etara bitartean.

Pisua salgai, garaje eta guzti. Tfnoa:763911.

SALDU-EROSI

Olioizko radiadoreak salgai. Bost neurri normalekoak eta bat bikoi-tza. Deitu: 764988, gauez.

YAMAHA PSR3 organoa salgai. 24 erritmo eta 100 ahots. Hanka, transformadore eta guzti. Berri-berria: 60.000 pzta. Deitu: 765231, gauez.

Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitorea, 3 pulgadako disketera, 30 joku. 35.000 pezeta. Tfnoa: 762512.

Karabana berri-berria salgai 5 pertsonarentzako abanize eta guzti. Deitu: 761388.

200 litrotako Fagor termo elektrikoa salgai. Deitu: 764988 gauez.

3 pertsonarentzako Iglu kanplng-denda berria salgai. Deitu: 763495.

Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai. Deitu: 86207 telefonora.

AMSTRAD CPC 6128 ordenadorea salgai, kolorezko monitorea, 40 joku eta 3 Joystick. 50.000 pzta. Deitu: 761528.

Txakur kumea erregalatuko nuke, arraza onekoa, harra eta beltza. Tfnoa: 761975 (arratsaldeko ordu 2etatik 3etara)

Neskentzako bizikleta salduko nuke. BH bole-ro rosa modeloa. 7tik 11 urtekoentzako modukoa. Otarre eta guzti. Tfnoa: 761314

Narruzko kremaileradun txaketa salgai. Berri-berria. Deitu: 763968.

SPECTRUM+2 bat salgai. 128 K eta 20 bat joku. 2 Joystick. 19.000 pezeta. Deitu: 762512.

Karrerako bizikleta bat mendiko bizikleta batengatik trukatu nuke. Deitu: 763269.

LANA

Arratsaldez lana egingo nuke etxeko lanak egiten edo umeak zaintzen. Deitu: 765482.

Neska euskaldun bat behar dut haurrak zaintzeko. Tfnoa: 765892.

Mutil batek furgoneta batekin errekauek egiten lan egingo luke. Deitu: 742063.

Hildakoak

Carmen Idarreta Sañudo
azaroaren 24an, 87 urte

Jaiotakoak

Olatz Etxeberria Jauregi
azaroaren 22an
Ainhoa Erriola De la Iglesia
azaroaren 22an

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

TABERNA



Irala 3, Tfnoa: 76 20 50 BERGARA

HALTZARI


FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Harane Erreka 4
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO
GARANTIA

BERGARA PIEL en zerbitzu berria

Cristina

Ospe handiko markak topatuko dituzu
bakero denda berrian:

Levis, Diesel, Carоче,...

Bezeroak zarete daukagunik onena!

Zure zain gaude Harruriaga z / g-ean.

Tfnoa: 76 03 04